

G7 EZ !
Euskal Herriko plataformaren
ibilmoldeari buruzko printzipioak

- « *G7 EZ !* » plataforma Euskal Herri mailan osatua da, G7aren kontra mobilizatzeko arrazoiak eta defenditutako eredu alternatiboak biltzen dituen "G7 eta bere munduaren aurkako mobilizazio deialdia" oinarritzat harturik.
- Deialdiarekin bat egiten duten eta parte hartu nahiko duten mugimendu, sindikatu edo alderdi orori irekia izanen zaie.
- Biarritzen 2019ko agorrileko G7aren kariatara edota aurreko hilabeteetan mobilizazio batzuk antolatu eta koordinatzeko xedea du plataformak. Horretarako borroka ideologikoa, masa mobilizazioak eta desobedientzia zibila izanen dira erabiliko dituen medioak.
- G7aren kontra mobilizatuko diren frantses, espainol edota nazioarteko sareekin elkarlanean arituko da plataformak.
- Plataformaren oinarri politikoa den deialditik haratago eta elkarrekin erabaki eta antolatutako mobilizazioez gain, plataformako partaide bakoitzak G7ari buruz beren diskurtso eta ekimen propioak garatzeko libertatea atxikiko du, beti ere plataformako beste partaideak errespetatuz eta konkurrentziak saihestuz. Plataformak ez ditu publikoki beste batzuek antolaturiko ekimenak baloratuko.
- Plataformak aldarrikatzen dituen balore eta aldarrien arabeko jokaerak aplikatuko ditu : genero berdintasuna (ordezkaritzan, komunikazioan) eta hizkuntzen aniztasuna (komunikazioa euskaraz, frantsesez eta espainolez)